



### Lana / La obra

Labirintoa zen, duela gutxi arte, Igeldoko Jolas Parkeko atrakzioirik arrakastatsuen. Gero, zurrumurrua zabaldu zen, Donostian desagertu ziren pertsona batzuk hantxe galdu ote ziren, labirintoan sartu eta ez zirela handik sekula atera, madarikatua zegoela labirinto hura, erokeria zela han sartzea... Egun batean, kalean asper-asper eginda daudela, Igeldora igo eta labirintoan sartzea proposatu die Malenek lagunei. Inork ez du horrelakorik nahi, jakina, baina Malen burugogorra da, oso, eta bera bakarrik joatea erabaki du. Han barruan, hainbat pertsonaia bitxirekin egingo du topo, eta lanak izango ditu irteera aurkitzeko... Malenen ibilera eta abelera horien guztien berri, jolas parkean umeak garraiatzen aritutako pottoka zahar baten ahotik jakingo du irakurleak, berak kontatzen baitu Malen eta labirinto madarikatuaren kondaira.

### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Malen labirinto madarikatuan**  
Egilea / Autor: **Joxerra Garzia**  
Saila / Colección: Perzebal, 35  
Adin gomendatua / Edad recomendada: 12-16 urte  
ISBN / EAN: 978-84-9109-210-0  
Salneurria / Precio: 10 € (BEZ barne – IVA incluído)  
Orri kopurua / Nº páginas: 88  
Formatua / Formato: 13 x 20,5 cm

### Egilea / El autor

**Joxerra Garzia Garmendia** (Legazpi, 1953ko apirilak 14). Ofizioz, irakasle eta kazetari aritua: Arrasate eta Tolosako ikastoletan, Euskal Herriko Unibertsitatean, Euskadi Irratian (Sorgin Afaria) eta Euskal Telebistan (Hitzetik Hortzera sortu eta aurkeztu), besteak beste. Afizioa, berriz, idaztea izan du beti. Malenen kondaira honekin Bapora Saria irabazi zuen 1985ean. Geroztik, genero bat baino gehiago jorratu du: gazte narrazioa (*Gau bat gauekoen artean eta Tunelaz bestalde*), poesia, metaforismoak, saiakera... Hainbat literatur sari jaso ditu: Irun Hiria eta Espainiako kritikarena poesian, Donostia Hiria narrazioan, Bapora (bi aldiz), gazte narrazioan. Euskal Idazleen Elkartearen lehendakari izan zen, 1993tik 1997ra. Gipuzkoako Foru Aldundiak Abadia Saria eman zion 2009an, euskararen alde egindako lanarengatik.



9 788491 092100